

PRESOEN SENIDEAK GORRIAK PASATZEN

Maiz izaten ditugu komunikabideen lehen orrietan negar malkoak, gutxitan ikusi ditugu, ordea, euskal preso politikoen senideenak. Gorriak pasa arren, legeak agintzen duena bera ere onartzen ez zaienean presoak eta hauen senideak bigarren mailako hiritarrak dira, Hego Afrikako beltzak edo Alemania naziaren garaian juduak ziren bezala. Eta dremokrazian bizi omen gara, aizue!

Eta gorriak pasa arren hortxe ditugu senideak, preso dituzten senideen eskubideen alde amore eman gabe, zintzo eta tinko.

Ondoren datorren entrebista honetan herriko hiru semeren amak dituzu bizi dutenaren berri ematen. Irakurri, ez itxi begi eta belarriak sufrimenduari.

Domi Jabi Arrietaren (Ocañan preso) ama dugu, Mayi Ramon Zabaletarena (Caceresen preso) eta Rosa Emiliano Viañarena (Ceutan preso).

Galdera: Nola ziren zuen semeak atxilotu baino lehen?

Domi: Edozein gaztek izan ditzakeen kezak eta afizioak zituen. Ikasketak frailetan egin zituen eta bukatu ondoren lan ezberdinak egin zituen; baina gehien bat tabernan. Bere afizioak mendia, musika, dantza eta kirolak (soka-tira, korrika, pelota eta abar) ziren. Lagunekin egotea eta noizean behin parrandak egitea ere gustokoak zituen.



Txikitatik afizio handia zuen zezenetan eta lehenago aldia enteratu giñela 8 urte zituela izan zen tabernara bazkaltzera etorri zen txofer batek esan zigulako Errenteriko zezen plazan ikusi zuela toreatzen.

Mayi: Beste gaztea bezala. Herriak dituen arazoengatik asko preokupatzen zen eta honen alde antolatzen ziren manifestazio guztietara joaten zen. Gero Jabi eta biek GESTORAN sartu ziren. Frailetan estudiatu zuen eta gero fontanero bezala hasi zen lanean detenitua izan arte. Gehien gustatzen zitzaiona natura zen eta sokatiran ere aritu zen. Oso txintxoia eta langilea zen eta jende askok propinak ematen zizkion.

Rosa: Pertsona normal bat zen. Lagunak Oreretakoak zituen eta bizitza han egiten zuen. Nere semea ere manifestazio guztietara joaten zen oso sentsibilizatua zegoelako. Herriko eskolan estudiatu zuen eta geroztik panadero lan egin zuen. Futbolean jokatzeko zuen eta gero sokatiran ibili zen Oiartzungo Girizia taldearekin.

G: Zer suposatu zuen familian semeen atxiloketak?

D: Oso gogorra izan zen. Semea kendu zidaten eta ez nekien gehiago ikusiko nuen. Denborak erakutsi digu tinko egoten eta euren askatasunaren alde borrokatzen.

M: Min izugarria, familian asko influitu zuen. Askok kostatu zitzaigun buelta ematea egoera horri. Hala ere konturatu ginen aurrera egin behar genuela gure laguntza behar zuelako.

R: Ikaragarritzko "paloa" hasieran baina gero pentsatu genuen berak gure laguntza behar zuela eta indarrak gorde behar genituela berari laguntzeko. Lehen bera joaten zen manifestazioetara orain, berriz, guri tokatzen zaigu joatea.

G: Zenbat denbora daramazu semea bisitatzen eta zein kartzela ezagutu dituzu?

D: 11 urte t'erdi darama kartzelan. 25 urterekin eraman zuten. Kartzela hauetan egon da: Carabanchel, Alcalá, Herrera de la Mancha, Burgos, Granada eta azken 3 urte hauetan Ocañan (Toledo).

M: 11 urte t'erdi ere atxilotu zutela. 23 urte zituen orduan eta kartzela hauetan egon da: Carabanchel, Alcalá, Herrera de la Mancha eta orain 8. Urtea egingo du Cacereseko kartzelan.

R: Carabanchelen, 21 urte egin arte Alcanan, Herrera de la Mancha eta azken 7 urte hauek Ceutako espetxean eman ditu.

G: Bidaiak nola egiten dituzue? Zenbat kostatzen da? Izan duzue istripurik edo bestelako arazorik?

D: Gu normalean kotxez joaten gara baina trenez eta autobusez ere joan izan gara. Astero norbait joaten da lagunak ere joaten direlako. Bidaiak balio duenarekin eta berari eman behar diogunarekin hilabetero 100.000 pztatik gora kostatzen zaigu. Zorionez ez zaigu istripurik gertatu baina kotxeen aberiak pasa izan dira.



M: Autobusez egiten dugu bidaia. 15 egunero antolatzen da autobusa. Domik esan duen bezala diru asko kostatzen zaigu eta familia batzuek ezin diete gastu hauei aurre egin. Hala ere koste haundiena osasun mailan pagatzen ari garela uste dut. Autobusak aberiren bat izan du eta behin batean elurra zegoelako kartzelara berandu iritxi ginen eta "vis a vis" ik gabe gelditu ginen.

R: Guk Algecirasera ino kotxez edo trenez joaten gara eta gero barkoa hartu behar dugu Ceutara pasatzeko. 15 egunero joaten gara bisitatzera. Normalean kosteak handiak badira hain urruti egoteak gehiago handitzen ditu.

Kotxeko bi istripu izan ditugu baina zorionez ez ziren oso larriak izan. Aberiak ere beste pare bat. Azken istripua trenarena izan zen eta justu justuan bizirik atera ziren amildetira erori bait zen trenea.

G: Zer iritzi daukazue dispertsioari buruz eta zer suposatuko luke zuentzat Euskal Herrira ekartzeak?

D: Ez dago eskubiderik gure semeak hain urruti eramateko. Gainera legeak dio presoak bere bizilekutik hurbilen egon behar duela. Ez genukeela bizitza jokatu beharko horrelako bidai luzeetan.

M: Guretzako sufrimendu handia da. Kontuan izanez gero senarra eta biok helduak garela eta gainera bera osasunez makal xamar dabilela ezin dugu nahi adina aldiz semea bisitatu.

Ba Euskal Herrian egonez gero gehiagotan egongo ginen gure semearekin.

R: Nik uste dut guri eta gure semeei jarri diguten beste zigor bat dela. Guretzako sekulako paliza da eta gainera ekonomiaren aldetik jasan ezin. Hemen egongo balira bisitak maizago izango lituzke.

G: Nola dago gaur egun semea?

D: Jabi fisiko aldetik ondo dago eta morala ere oso goian dauka.

M: Ramon oso gogor ikusten dut eta gainera oso guapo dago. Kezkatzen dioten gauza bakarra gure bidaiaren gora-beherak dira; etxetik noiz atera garen; zenbat ordu pasa ditugun; zein ordutan iritsi garen...

R: Jabi ondo dago, besteak bezala gogor eta tinko. Berak esaten duen bezala indartsu mantendu behar dela etor daitekeenarengatik.

G: Besterik aipatzeko?

D: Nik agintariei esango nieke dispertsioa ilegala dela esaten badute gure semeak behingoz Euskal Herrira ekartzeko eta gezurretan ez ibiltzeko sufritzen ari garena brome-takoa ez delakoz. Urte asko daramatela presoen eskubideak zapaltzen eta legeak beteko balute 90 presotik gora egon beharko lukete kalean, hauen artean hiru oso gaixo daude-nak eta pixkanaka-pixkanaka kartzelan hiltzen direnak.

M: Nik Juanito Trecetek aske egon beharko lukeela gogoratu nahiko nuke, 17 urte daramazki kartzelan, "ya está bien". Gainera Juanitoren aita hilzorian zegoenean permiso bat eskatu zuen bere aitarekin egoteko hil baino lehen eta hori ere ukatu egin zioten. Genarok nahi zuen gauza bakarra horixe zen, alegia, bere semearekin egotea hil baino lehen eta zoritxarrez pena horrekin hil zen. Gure agurrik beroena Juanitorentzat da. "Aupa Juanito"!

R: Nik Lezoko herriari esango nioke ez pentsatzeko arazoa gurea bakarrik denik, eta oraingoan guri tokatu bazaigu ere edozein momentutan beste edozein familiari tokatu dakiokela. Guk ez dugu aukeratu egoera hau, preso, errefuxiatu edo deportatuen senitartekoa izatea ez delakoz "aukeratzen" "tokatzen" baizik. Euskal Herriko arazoa konpontzen ez den bitartean famili gehiago egongo garela egoera honetan.

Lezoko Senideak

